

## FUNTSEZKO JARDUERAK

### **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Ahalik eta kostu gutxien erabiliz bateria oso iraunkorrak lortzea bezeroak erakarri eta fidelizatu ahal izateko. Gaur egun ez baitaude kilometro asko irauten duten kotxe elektrikoak eta horrek denborara gelditu eta berriz ere kotxea kargatzen jartzera behartzen gaitu. Bestalde, kotxearen elektrizitate kontsumo maila jeistea lortzen badugu, bateria oso on batekin batera, izugarrizko abantaila izango dugu gainontzeko enpresengan. Izan ere, hori dela uste dugu gaur egun kotxe elektrikoak ez erostearen arrazoia. Noizbait gasolina agortu egingo da eta gainera asko kutsatzen du. Lehenago edo beranduago denok izango dugu kotxe elektrikoa beste erregai motaren bat azaltzen ez bada, eta guk, etorkizuneko kotxe hori errealitate bihurtu nahi dugu.

Gainontzeko kotxeko zatiak ahalik eta merkeen lortzea da helburua. Beste enpresa batengandik kostu abantaila bat lortzeko beste enpresa batekin arituko gara elkarlanean. Hau guztiagatik, hornitzaile egokienak bilatzea da gure lehentasuna, prezio eta kalitate maila altuak uztartuz.

Bestalde oso garrantzitsua izango da iragarki kanpaina on bat egitea, hau da, sare eta plataforma digitaletako jarduerak gauzatzea, hau kanpoko enpresa baten esku utziko dugu, gure produktua erostera ahalik eta gehien animatzeko. Hala ere, kotxeen konponketa eta muntaian, know how ezagutzarekin lotutako guztian, gure abileziak aprobetxatuko ditugu merkatuan ezagutzera emateko.